S U P L E M E N T O - G E H I G A R R I A

# BOLETIN OFICIAL DEL TERRITORIO HISTORICO DE ALAVA

# ARABA LURRALDE HISTORIKOAREN ALDIZKARI OFIZIALA

Correspondiente al 11-12-1989ri
dagokiona (N.º 142 zkia)

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

744

### NORMA FORAL 63/1989, DE 20 DE NOVIEMBRE, DE CUADRILLAS.

EXPOSICION DE MOTIVOS

Alava, en su actual configuración, es el resultado de un proceso de incorporaciones territoriales a lo largo de la historia.

Consecuencia de ello es que Alava la forman áreas geográficas o comarcas bien diferenciadas en su paisaje, en su poblamiento, en sus recursos naturales, en sus producciones y en la idiosincrasia de las gentes que las habitan.

Las distintas comarcas de Alava presentan problemas específicos y generan intereses singulares.

Esta evidencia social y económica precisa articularse políticamente.

La presente Norma institucionaliza la Cuadrilla como una fórmula idónea para que los distintos intereses territoriales tengan su cauce de análisis y expresión, creando una figura jurídica con capacidad para promover y gestionar servicios generales en su circunscripción.

La Cuadrilla puede dar respuesta a la problemática comarcal. Engarza la figura foral de la Cuadrilla con la que históricamente fue la principal división del territorio provincial ya que como es conocido hasta la Ley de 21 de julio de 1876, Alava se componía de siete Cuadrillas conforme recuerda el aforismo «Zazpi talde Araba bat», «Siete cuadrillas hace Alava una».

Con la presente norma se instituyen las Cuadrillas como órganos de participación y consulta, es decir, como instrumentos de relación entre aquellas, las Juntas Generales y la Diputación y como entes de promoción y gestión de servicios de interés común de las mismas.

Se configura también la Cuadrilla como el marco territorial apropiado para la implantación de políticas generales o secto-

### AZAROAREN 20KO 63/1989 FORU ARAUA, ESKUALDEEI BURUZ.

ZIOEN AZALPENA

Araba, gaurregun osatuta dagoen moduan, historian zehar gertaturiko lurralde-eransketa prozesu baten emaitza da.

Horren ondorioz, Araba bere paisaiaz, bere populamenduaz, bere natur baliabideez, bere ekoizpenez eta bertan bizi diren jendeen izaeraz ongi desberdindutako eremu geografiko edo eskualdeek osatzen dute.

Arabako eskualde desberdinek arazo espezifikoak dituzte eta interes bereziak sortzen dituzte.

Gizarte eta ekonomi errealitate honek egituraketa politiko bat behar du.

Arau honek Eskualdea lurraldeen interes desberdinek azterpidea eta adierazpidea izan dezaten erarik egokiena bezala instituzionalizatzen du, bere barrutian orotariko zerbitzuak sustatzeko eta kudeatzeko gaitasuna duen figura juridiko bat sortzen duelarik.

Eskualdeak berezko eskualdeen problematikari erantzuna eman diezaioke. Foru tradizioan sustraituriko Eskualdea historikoki probintziaren lurraldearen banaketarik nagusiena izan zenarekin lotzen du, zeren eta, ezaguna denez, 1876ko uztailaren 21eko Legera arte Araba zazpi Eskualdek osatzen bait zuten, «Zazpi taldek Araba bat» «Siete cuadrillas hacen Alava una» esaerak gogorazten duen bezala.

Oraingo arau honekin Eskualdeak parte hartze eta kontsultarako organo bezala eratzen dira, hau da, beraien, Biltzar Nagusien eta Aldundiaren arteko harremanetarako tresna bezala eta beraien interes komuneko zerbitzuak sustatu eta kudeatzeko erakunde bezala.

Halaber, bere garapenerako udalerriak baino esparru zabalagoak behar dituzten politika orokorrak edo sektorialak ezar-

riales que precisan de espacios más amplios que el de los municipios para su desarrollo, sin que ello suponga merma de las competencias propias de los entes municipales y locales que se pueden beneficiar directamente de actuaciones que serían económicamente inviables en su demarcación.

Diversos textos y normas legales de los últimos años hacen referencia a las Cuadrillas sin que hasta el momento se haya regularizado o institucionalizado su existencia. Así, la Norma Foral de 7 de marzo de 1983 de Organización Institucional del Territorio Histórico de Alava, define el territorio constituido por Cuadrillas y Hermandades. También las Cuadrillas han sido en los últimos años circunscripciones electorales para el acceso a las Juntas Generales, lo que continúan siéndolo aunque mediante la agregación de algunas.

La redefinición de las Cuadrillas por las Juntas Generales se justifica en la competencia exclusiva de los Territorios Históricos para establecer demarcaciones territoriales de ámbito supramunicipal que no excedan de los límites provinciales, así como en la de determinar la organización, régimen y funcionamiento de las propias Instituciones que reconoce el artículo 37 del Estatuto de Autonomía.

La presente Norma Foral pretende ser un instrumento para que las Cuadrillas como entidades territoriales de naturaleza foral asuman su protagonismo social y político. Delimita la Norma las Cuadrillas y sus sedes así como diseña su organización y funcionamiento. Incide también en las competencias, potestades y recursos de las mismas y perfila el mecanismo de relaciones con la Diputación y las Juntas Generales.

TITULO PRIMERO.— DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.— La Cuadrilla se constituye como una entidad territorial foral integrada por los Municipios al objeto de participar en los asuntos y promover y gestionar cuestiones de interés general que afecten a su ámbito territorial.

Artículo 2.— Las Juntas Generales de Alava, mediante Norma Foral, regulan la organización, composición, competencias y potestades de las Cuadrillas.

Artículo 3.— La Cuadrilla no podrá asociarse ni federarse. Tampoco cabrá delegar la representación de la Cuadrilla en miembros ajenos a los que componen sus órganos rectores.

TITULO SEGUNDO.— AMBITO TERRITORIAL Y SEDES

Artículo 4.— El Territorio de Alava se compone de las siguientes Cuadrillas:

1.— Cuadrilla de Vitoria-Gasteiz/Vitoria-Gasteizko Eskualdea.

2.— Cuadrilla de Ayala/Aiarako Eskualdea.

3.— Cuadrilla de Salvatierra/Aguraingo Eskualdea.

4.— Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa/Biasteri Arabako Errioxako Eskualdea.

5.— Cuadrilla de Zuya/Zuiako Eskualdea.

6.— Cuadrilla de Añana/Añanako Eskualdea.

7.— Cuadrilla de Campezo/Kanpezuko Eskualdea.

Artículo 5.— La Cuadrilla de Vitoria-Gasteiz está integrada por el Municipio de su nombre, siendo su sede Vitoria-Gasteiz.

Artículo 6.— La Cuadrilla de Ayala/Aiara, comprende los Municipios de Amurrio, Arceniega, Ayala, Llodio y Okondo. Se establece su sede en Llodio.

Artículo 7.— La Cuadrilla de Salvatierra está integrada por los Municipios de Alegría-Dulantzi, Aspárrena, Barrundia, Elburgo, Iruraiz-Gauna, Salvatierra, San Millán y Zalduondo.

Se establece su sede en Salvatierra.

Artículo 8.— La Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa comprende los Municipios de Baños de Ebro, Cripán, Elciego, Elvi-

tzeko lurralde esparru egokia bezala eratzen da Eskualdea, bere mugartean ekonomikoki bideraezinak izango liratekeen ekintzen onura zuzenean jaso ditzaketen udal eta toki erakundeen berezko eskumenen murrizpenik ekarri gabe.

Azken urteotako legezko arau eta testu zenbaitek Eskualdeak aipatzen dituzte, orain arte bere izatea arauzkotu edo instituzionalizatu ez delarik. Era honetan, Arabako Lurralde Historikoaren Antolaketa Instituzionalari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauak, Eskualdeek eta Anaiarteek osatuta definitzen du lurraldea. Eskualdeak azken urteotan Biltzar Nagusietarako hauteskunde barrutiak ere izan dira, eta oraindik ere badira, baten batzu bat eginda diren arren.

Eskualdeak Biltzar Nagusiek birdefinitzea probintzi mugak gainditzen ez dituzten udalezgaindiko esparruko lurraldemugaketak ezartzeko Lurralde Historikoek duten eskumen esklusiboaz justifikatzen da, baita bere Erakundeen antolaketa, erregimena eta funtzionamendua zehazteko Autonomi Estatutuaren 37. artikuluak aintzatesten duen eskumenaz ere.

Foru Arau honen asmoa Eskualdeak, foru izaerako lurralde entitate bezala, gizarte eta politika arloan dagokien eginkizuna bere gain har dezaten tresna bat izatea da. Arauak Eskualdeak eta berauen egoitzak zehazten ditu, eta bere antolaketa eta funtzionamendua ere tajutzen ditu. Haien eskumenak, ahalmenak eta baliabideak ere ukitzen ditu, eta Aldundiarekiko eta Biltzar Nagusiekiko harremanetarako bidea adierazten du.

LEHENENGO TITULUA.— XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua.— Eskualdea, Udalerriek bere lurralde-esparruari dagozkion gaietan parte hartzeko eta arazo orokorrak sustatu eta kudeatzeko osatutako foru izaerako lurralde entitate bezala eratzen da.

2. Artikulua.— Arabako Biltzar Nagusiek, Foru Arau bidez, Eskualdeen antolaketa, osakera, eskumenak eta ahalmenak arautzen dituzte.

3. Artikulua.— Eskualdea ezin izango da elkartu edo federatu. Ezin izango da Eskualdearen ordezkaritza bere zuzendaritzaorganoak osatzen dituzten kideez beste inorengan eskuordetu ere.

BIGARREN TITULUA.— LURRALDE EREMUA ETA EGOITZAK.

4. Artikulua.— Arabako Lurraldea honako Eskualdeek osatzen dute:

1.— Cuadrilla de Vitoria-Gasteiz/Vitoria-Gasteizko Eskualdea.

2.— Cuadrilla de Ayala/Aiarako Eskualdea.

3.— Cuadrilla de Salvatierra/Aguraingo Eskualdea.

4.— Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa/Biasteri-Arabako Errioxako Eskualdea.

5.— Cuadrilla de Zuya/Zuiako Eskualdea.

6.— Cuadrilla de Añana/Añanako Eskualdea.

7.— Cuadrilla de Campezo/Kanpezuko Eskualdea.

5. Artikulua.— Vitoria-Gasteizko Eskualdea izen bereko Udalerriak osatzen du, eta haren egoitza Vitoria-Gasteiz da.

6. Artikulua.— Ayala/Aiarako Eskualdeak Amurrio, Artziniega, Ayala, Laudio eta Okondoko Udalerriak barne hartzen ditu. Haren egoitza Laudion ezartzen da.

7. Artikulua.— Aguraingo Eskualdea Alegría-Dulantzi, Asparrena, Barrundia, Elburgo, Iruraiz-Gauna, Agurain, San Millán eta Zalduondoko Udalerriek osatzen dute.

Haren egoitza Agurainen ezartzen da.

8. Artikulua.— Biasteri-Arabako Errioxako Eskualdeak Baños de Ebro, Cripán, Elciego, Elvillar, Labastida, Biasteri, Lanciego,

lar, Labastida, Laguardia, Lanciego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda de Alava, Navaridas, Oyón, Samaniego, Villabuena y Yécora.

Su sede se establece en Laguardia.

Artículo 9.— La Cuadrilla de Zuya está integrada por los Municipios de Aramaio, Arrazua-Ubarrundia, Cigoitia, Legutiano, Urcabustaiz y Zuya.

Se establece su sede en Murgia.

Artículo 10.— La Cuadrilla de Añana comprende los Municipios de Armiñón, Berantevilla, Cuartango, Iruña de Oca, Lantarón, Ribera Alta, Ribera Baja, Salinas de Añana, Valdegovía y Zambrana.

Se establece su sede en Rivabellosa.

Artículo 11.— La Cuadrilla de Campezo se integra por los Municipios de Maestu, Peñacerrada, Valle de Arana, Bernedo, Lagrán y Campezo

Su sede se establece en Santa Cruz de Campezo.

Artículo 12.— Los Organos rectores de las Cuadrillas se reúnen en sus respectivas sedes.

TITULO TERCERO.— ORGANIZACION Y FUNCIONAMIENTO

Capítulo I.— Organos rectores de la Cuadrilla

Artículo 13.— Los órganos rectores de la Cuadrilla son:

a) La Junta de Cuadrilla.

b) El Presidente.

Artículo 14.— 1.— La Junta de Cuadrilla/Eskualde Batzarra es el órgano máximo de representación de los intereses de la Cuadrilla y adopta decisiones sobre los asuntos de su competencia.

2.— La Junta de Cuadrilla se compone por los Junteros de Cuadrilla, designados por los Ayuntamientos Plenos de los Municipios que la integran, de entre sus concejales, conforme a la siguiente escala:

a) Municipios de menos de 500 habitantes, un juntero.

b) Municipios de 501 a 1.000 habitantes, dos junteros.

c) Municipios de 1.001 a 2.000 habitantes, tres junteros.

d) Municipios de 2.001 a 5.000 habitantes, cinco junteros.

e) Municipios de 5.001 a 10.000 habitantes, siete junteros.

f) Municipios de 10.000 a 20.000 habitantes, nueve junteros.

g) Municipios de más de 20.000 habitantes, doce junteros.

3.— Constituidos todos los Ayuntamientos, se procede inmediatamente a formar una relación de todos los partidos políticos, coaliciones, federaciones y de cada una de las agrupaciones de electores que hayan obtenido algún concejal, ordenándose en orden decreciente al de votos obtenidos por cada uno de ellos.

En los Ayuntamientos de menos de 250 habitantes el número de votos a tener en cuenta por cada candidatura se obtiene dividiendo la suma de los votos obtenidos por cada uno de sus componentes entre el número de candidatos que formaban la correspondiente lista hasta un máximo de cuatro. Se corrigen por defecto las fracciones resultantes.

Realizadas estas operaciones se procede a distribuir los puestos que correspondan a los partidos, coaliciones, federaciones y a cada una de las agrupaciones de electores en cada Municipio mediante la aplicación del procedimiento previsto en el artículo 163 de la Ley Electoral General, según el número de votos obtenidos por cada grupo político o cada agrupación de electores.

Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda de Alava, Navaridas, Oion, Samaniego, Villabuena eta Yécorako Udalerriak barne hartzen ditu.

Haren egoitza Biasterin ezartzen da.

9. Artikulua.— Zuiako Eskualdea Aramaio, Arrazua-Ubarrundia, Cigoitia, Legutiano, Urcabustaiz eta Zuiako Udalerriek osatzen dute.

Haren egoitza Murgian ezartzen da.

10. Artikulua.— Añanako Eskualdeak Armiñón, Berantevilla, Cuartango, Iruña de Oca, Lantarón, Ribera Alta, Ribera Baja, Salinas de Añana, Valdegovía eta Zambranako Udalerriak barne hartzen ditu.

Haren egoitza Rivabellosan ezartzen da.

11. Artikulua.— Kanpezuko Eskualdea Maestu, Peñacerrada, Valle de Arana, Bernedo, Lagrán eta Kanpezuko udalerriek osatzen dute.

Haren egoitza Santa Cruz de Campezon ezartzen da.

12. Artikulua.— Eskualdeen zuzendaritza-organoak haietako bakoitzaren egoitzetan biltzen dira.

HIRUGARREN TITULUA.— ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA.

I. Kapitulua.— Eskualdearen zuzendaritza-organoak.

13. Artikulua.— Eskualdearen zuzendaritza-organoak honakoak dira:

a) Eskualde Batzarra.

b) Lehendakaria.

14. Artikulua.— 1.— Eskualde Batzarra/Junta de Cuadrilla delakoa Eskualdearen interesak ordezkatzen dituen organo gorena da, eta bere ardurako arazoei buruz erabakiak hartzen ditu.

2.— Eskualde Batzarra Eskualde Batzarkideek osatzen dute, eta hauek Eskualdea osatzen duten Udalerrietako Osoko Udalbatzak bere zinegotzien artetik izendatzen dituzte, honako eskalaren arabera:

a) 500 biztanletik beherako Udalerriak, batzarkide bat.

b) 501 eta 1.000 biztanleren arteko Udalerriak, bi batzarkide.

c) 1.001 eta 2.000 biztanleren arteko Udalerriak, hiru batzarkide.

d) 2.001 eta 5.000 biztanleren arteko Udalerriak, bost batzarkide.

e) 5.001 eta 10.000 bizfanleren arteko Udalerriak, zazpi batzarkide.

f) 10.001 eta 20.000 biztanleren arteko Udalerriak, bederatzi batzarkide.

g) 20.000 biztanletik gorako Udalerriak, hamabi batzarkide.

3.— Udalerri guztiak eratuta, berehalakoan zinegotzirik lortu duten alderdi politiko, koalizio, federazio eta hautesle elkarte guztien zerrenda bat egingo da, haietariko bakoitzak lortutako boto kopuru handienetik txikienerako hurrenkeran ordenatuko direlarik.

250 biztanletik beherako Udalerrietan hautagai-zerrenda bakoitzerako kontutan hartu beharreko boto kopurua bere kideetariko bakoitzak lortutako botoen batura zerrenda egokia osa-tzen zuten hautagaien kopuruaren artean (lau gehienez ere) zatituz ateratzen da. Ateratzen diren frakzioak goraka zuzentzen dira.

Eragiketa hauek eginda, alderdiei, koalizioei, federazioei eta hautesle elkarte bakoitzari Udalerri bakoitzean dagozkien postuak banatzeari ekingo zaio, Hauteskunde Lege Orokorraren 163. artikuluan aurrikusitako prozedura aplikatuz, talde politiko edo hautesle elkarte bakoitzak lortutako boto kopuruaren arabera.

Si se produjera coincidencia de cocientes entre los distintos partidos, coaliciones, federaciones y agrupaciones, la vacante se atribuye al que mayor número de votos ha obtenido y en caso de empate al de mayor número de concejales. Subsidiariamente se resolverá el empate por sorteo.

Artículo 15.— La designación de los Junteros de Cuadrilla se verificará en el plazo de dos meses desde la fecha de constitución de los respectivos Ayuntamientos y se notificará a las Juntas Generales de Alava.

Artículo 16.— 1.— Los Junteros de Cuadrilla son designados por el mismo tiempo de duración de su mandato de concejales y cesan también por las mismas causas.

2.— Las vacantes que se produzcan durante el mandato de la Junta de Cuadrilla serán cubiertas por el Ayuntamiento Pleno que nombró al Juntero de Cuadrilla cesante mediante designación de su sustituto.

3.— Tanto los ceses como los posteriores nombramientos se notificarán a las Juntas Generales.

Artículo 17.— Los Junteros de Cuadrilla no están sujetos a mandato imperativo.

Artículo 18.— 1.— La Junta de Cuadrilla elegirá de entre sus miembros un Presidente y un Vicepresidente.

2.— La elección se verificará mediante votación nominal y secreta, en la sesión constitutiva de la Junta de Cuadrilla.

3.— Todos los Junteros de Cuadrilla puede ser candidatos a los cargos anteriores.

4.— El Presidente y Vicepresidente se elegirán simultáneamente. Cada Juntero de Cuadrilla escribirá un solo nombre en la papeleta de votación y resultarán elegidos, por su orden, los dos que obtengan el mayor número de votos.

5.— En caso de empate entre varios candidatos resultará proclamado el de mayor edad.

Artículo 19.— El Presidente de la Junta de Cuadrilla ostenta la representación oficial de la misma, convoca y preside las sesiones de la Junta y Comisiones; dirige, supervisa e impulsa los servicios y obras, así como el personal que, en su caso asuma la entidad, y ejercita las funciones que le sean atribuidas por Normas Forales de las Juntas Generales.

Artículo 20.— El Vicepresidente de la Junta de Cuadrilla sustituye al Presidente, supliéndole en sus funciones en caso de vacante, ausencia o imposibilidad de éste. Desempeñará además cualquier otra función que le encomiende el Presidente.

Artículo 21.— 1.— La Junta de Cuadrilla se constituirá una vez hayan sido nombrados la mayoría absoluta de sus miembros dentro de los veinte días siguientes a la finalización del plazo señalado en el artículo 16.

2.— La sesión constitutiva será convocada por el Presidente de las Juntas Generales de Alava y presidida por el mismo o por algunos de los Vicepresidentes en quien delegue, asistido por uno de los Secretarios de Juntas Generales.

3.— Abierta la sesión se verificará la identidad de los presentes, de acuerdo con las credenciales otorgadas por los correspondientes Ayuntamientos Plenos. Seguidamente se procederá a la elección de Presidente y Vicepresidente de la Junta de Cuadrilla. El Presidente de las Juntas Generales o Vicepresidente en quien delegue, proclamará a quienes resulten elegidos, que tomarán posesión de su cargo y declarará constituida la Junta de Cuadrillas.

Artículo 22.— 1.— El Pleno de la Junta de Cuadrilla se celebrará con carácter Ordinario dos veces al año en los meses de Mayo y Noviembre, y con carácter extraordinario cuantas veces sea preciso para el debate y resolución de los asuntos de su competencia.

Alderdi, koalizio, federazio eta elkarte desberdinen arteko zatidura-berdinketarik gertatuz gero, betetzeko postua boto gehiago lortu dituenari esleitzen zaio, eta berdinduta egonez gero, zinegotzi kopuru handiagoa duenari. Azken buruan, berdinketa zozketa bidez desegingo da.

15. Artikulua.— Eskualde Batzarkideen izendapena Udal bakoitza eratuta geratzen den egunetik hasita bi hilabeteren barruan egingo da, eta Arabako Biltzar Nagusiei jakineraziko zaie.

16. Artikulua.— 1.— Eskualde Batzarkideak bere zinegotzi agintaldiak irauten duen denbora berdinerako izendatzen dira eta arrazoi berdinengatik uzten diote karguari.

2.— Eskualde Batzarraren agintaldian zehar sortzen diren hutsuneak, karguari utzi dion Eskualde Batzarkidea izendatu zuen Osoko Udalbatzak beteko ditu, haren ordezkoa izendatuz.

3.— Uzteak nola ondorengo izendapenak Biltzar Nagusiei jakineraziko zaizkie.

17. Artikulua.— Eskualde Batzarkideak ez daude aginte inperatiboaren pean.

18. Artikulua.— 1.— Eskualde Batzarrak bere kideen artetik Lehendakaria eta Lehendakariordea hautatuko ditu.

2.— Hautaketa izenezko bozketa sekretuz egingo da, Eskualde Batzarraren eratze bilkuran.

3.— Eskualde Batzarkide guztiak esandako karguetarako hautagai izan daitezke.

4.— Lehendakaria eta Lehendakariordea aldi berean hautatuko dira. Eskualde Batzarkide bakoitzak bozketa-txartelean izen bakar bat idatziko du, eta boto kopururik handiena lortzen duten biak, bere hurrenkeran, izango dira hautatuak.

5.— Hautagai batzuren arteko berdinketarik izanez gero, adin handienekoa izango da aldarrikatua.

19. Artikulua.— Eskualde Batzarraren Lehendakariak haren ordezkaritza ofiziala du, Batzarraren eta Batzordeen bilkuretarako deia egiten ditu eta bertan mahaiburu da; zerbitzuak eta lanak, baita entitateak hartzen dituen langileak ere, hala gertatuz gero, zuzendu, ikuskatu eta bultzatzen ditu, eta Biltzar Nagusien Foru Arauek esleitzen dizkien eginkizunak betetzen ditu.

20. Artikulua.— Eskualde Batzarraren Lehendakariordeak Lehendakaria ordezten du, honen hutsune, kanpoaldi edo ezintasun kasuetan bere ordez arituz. Gainera, Lehendakariak haren gain jartzen duen beste edozein eginkizun ere beteko ditu.

21. Artikulua.— 1.— Eskualde Batzarra, bere kideen erabateko gehiengoa izendatuta gero, 16garren artikuluan adierazitako epea amaitu ondoko hogei egunen barruan eratuko da.

2.— Eratze bilkurarako deia Arabako Biltzar Nagusien Lehendakariak egingo du, beraren edo berak eskuordetutako Lehendakarietako batzuren lehendakaritzapean, Biltzar Nagusien Idazkarietako batek lagunduta.

3.— Bilkura hasita, bertan daudenen nortasuna egiaztatuko da, Osoko Udalbatzek emandako egiaztagirien arabera. Jarraian Eskualde Batzarraren Lehendakaria eta Lehendakariordea hautatzeari ekingo zaio. Biltzar Nagusien Lehendakariak edo berak eskuordetutako Lehendakariordeak hautaturik ateratzen direnak aldarrikatuko ditu, zeintzu bere karguaz jabetuko diren, eta Eskualde Batzarra eratuta deklaratuko du.

22. Artikulua.— 1.— Eskualde Batzarraren Osoko Bilkura ohizko izaeraz urtean bi aldiz egingo da, maiatzean eta azaroan, eta aparteko izaeraz bere ardurako arazoak eztabaidatzeko eta erabakitzeko behar den bezanbat aldiz.

2.— Las convocatorias se realizarán por el Presidente mediante escrito con tres días de antelación a la fecha prevista para el Pleno, que contendrá el Orden del Día de la Sesión.

3.— La Junta de Cuadrilla podrá reunirse en cualquiera de las localidades de la Cuadrilla.

Artículo 23.— 1.— La Junta de Cuadrilla podrá constituir Comisiones en su seno.

2.— Dichas Comisiones estudiarán y prepararán los asuntos que hayan de ser sometidos a decisión del Pleno de la Junta de Cuadrilla.

Artículo 24.— 1.— Las decisiones de la Junta de Cuadrilla se adoptan por mayoría simple. Existe mayoría simple cuando los votos positivos superan a los negativos, sin que a estos efectos se computen las abstenciones.

2.— Se requerirá, no obstante, mayoría absoluta del número legal de miembros para:

a) Aprobación y Modificación de sus propios reglamentos orgánicos.

b) Asunción de competencias.

c) La adopción de acuerdos en aquellas materias en que así lo exija la Ley.

3.— Se requerirá mayoría cualificada de dos tercisos para el acuerdo de establecimiento de nuevos servicios comunes.

4.— Las votaciones se realizarán ordinariamente mediante signos exteriores que señalen inequívocamente el sentido del voto de los presentes a requerimiento del Presidente.

Pero cuando se trate de nominar personas o así lo pidan la cuarta parte de los Junteros de Cuadrilla presentes, la votación se hará mediante papeleta escrita y será secreta.

Artículo 25.— 1.— No podrá reunirse válidamente el Pleno de la Junta de Cuadrilla en primera convocatoria si no acuden a la misma al menos la mitad más uno de sus miembros de derecho. En segunda convocatoria, que se celebrará al menos veinticuatro horas después de la primera, se constituirá válidamente el Pleno con los presentes.

2.— Las mismas condiciones regirán para que sean válidas las reuniones de las Comisiones.

Artículo 26.— De todas las reuniones que celebren la Junta y Comisiones se levantará acta que contendrá relación de personas asistentes, orden del día de la reunión, resumen sucinto de los asuntos tratados, resoluciones adoptadas y expresión de los resultados de las votaciones habidas.

Artículo 27.— La Junta de Cuadrilla de Vitoria-Gasteiz estará constituida por el Pleno de su Ayuntamiento ostentando las facultades y potestades que le correspondan.

El Alcalde de la Ciudad ostentará la presidencia de la Junta de Cuadrilla.

TITULO CUARTO.— COMPETENCIAS Y POTESTADES

Artículo 28.— Corresponde a las Cuadrillas, como institución de participación y consulta y de promoción y gestión de intereses comarcales:

a) La emisión de Informes en anteproyectos de Norma Foral redactados por la Diputación, que afecten específicamente al interés de la Cuadrilla.

b) Informar sobre cualquier otro asunto de interés general para la Cuadrilla que sea sometido a su consideración por la Diputación Foral o las Juntas Generales de Alava.

c) Proponer a la Diputación Foral de Alava, Planes y Programas de Actuación de interés específico de cada Cuadrilla que sean competencia de aquélla.

2.— Deiak Lehendakariak Osoko Bilkurarako aurrikusitako data baino hiru egun lehenago egingo ditu idazki bidez, non Bilkurako Gai Zerrenda agertuko den.

3.— Eskualde Batzarra Eskualdeko herrietako edozeinetan bildu ahal izango da.

23. Artikulua.— 1.— Eskualde Batzarra Batzordeak eratu ahal izango ditu bere baitan.

2.— Batzorde hauek Eskualde Batzarraren Osoko Bilkurara erabakitzeko ekarri beharreko arazoak aztertu eta prestatuko dituzte.

24. Artikulua.— 1.— Eskualde Batzarraren erabakiak gehiengo soilez hartzen dira. Baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean gehiengo soila dago, honen konturako abstentzioak zenbatu gabe.

2.— Hala ere, legezko batzarkide kopuruaren erabateko gehiengoa beharko da gai hauetarako:

a) Bere araudi organikoen Onespena eta Aldaketa.

b) Eskumenak bereganatzea.

c) Legeak hala beharresten duen gaietan erabakiak hartzea.

3.— Bi herenetako gehiengo kualifikatua beharko da zerbitzu amankomunak ezartzeko erabakia hartzeko.

4.— Bozketak, agizko, bertan daudenen botoaren zentzua ezpairik gabe adierazten duten kanpoko zeinuez egingo dira, Lehendakariak hala eskatuta.

Baina pertsonak izendatzeko denean edo bertan daudenen Eskualde Batzarkideen laurdenak hala eskatzen duenean, bozketa idatzizko txartelen bidez egingo da eta sekretua izango da.

25. Artikulua.— 1.— Eskualde Batzarraren Osoko Bilkura ezin egingo da lehenengo deialdian baldin, gutxienez, legezko kideen erdiak eta bat gehiago bertaratzen ez badira. Bigarren deialdian, zein lehenengotik hogeitalau ordu gutxienez igarota egingo den, Osoko Bilkura bertan daudenekin eratuko da balio osoz.

2.— Baldintza berberak aginduzkoak izango dira Batzordeen bilerak baliozkoak izan daitezen.

26. Artikulua.— Batzarrak eta Batzordeek egiten dituzten bilera guztien Akta egingo da, zeinetan bertatatutako pertsonen zerrenda, bilerako lan zerrenda, eztabaidatutako arazoen llaburpena, hartutako erabakiak eta izandako bozketen emaitzen adierazpena agertu beharko diren.

27. Artikulua.— Vitoria-Gasteizko Eskualde Batzarra bertako Osoko Udalbatzak osatuko du, dagozkion ahalmenak eta eskumenak dituelarik.

Hiriko Alkatea izango da Eskualde Batzarraren lehendakaria.

LAUGARREN TITULUA.— ESKUMENAK ETA AHALMENAK.

28. Artikulua.— Eskualdeei, parte hartze eta kontsultarako eta interes komuneko zerbitzuak sustatu eta kudeatzeko erakunde bezala, honako gaiak dagozkie:

a) Foru Aldundiak gertatzen dituen eta Eskualdearen interesean berariaz eragina duten Foru Arau aitzinproiektuetan informeak ematea.

b) Eskualdearentzako interes orokorrekoa den eta Arabako Foru Aldundiak edo Biltzar Nagusiek bere eritzia jasotzeko aurkezten duten beste edozein arazori buruz informeak ematea.

c) Arabako Foru Aldundiari, honen ardurakoak eta Eskualde bakoitzarentzat berariaz interesekoak diren Iharduketa-Egitasmoak eta Egitarauak proposatzea.

d) Canalizar y ejercer en su caso, aquellas funciones asignadas a entes de carácter comarcal en el desarrollo y ejecución de políticas sectoriales de la Comunidad Económica Europea, del Estado, Comunidad Autónoma y Territorio Histórico.

e) Promover y gestionar servicios de interés general de la Cuadrilla.

f) Asumir competencias por delegación o transferencia de los Ayuntamientos, Diputación y otras instituciones de derecho público.

g) Formular propuesta de obras del Plan Foral de Obras y Servicios de la Cuadrilla con carácter previo a la redacción por la Diputación Foral de referido Plan.

Artículo 29.— Corresponden a las Cuadrillas las potestades que para los Entes Locales Territoriales asigne la legislación general.

TITULO QUINTO.— RECURSOS DE LAS CUADRILLAS

Artículo 30.— La Hacienda de las Cuadrillas deberá ser autosuficiente y estará constituida por los siguientes recursos:

a) Ingresos de Derecho Privado.

b) Tasas por la prestación de servicios o la realización de actividades de su competencia.

c) Contribuciones especiales para la ejecución de obras o para el establecimiento, ampliación o mejora de servicios de la competencia de dichas Entidades.

d) Subvenciones y otros ingresos de Derecho Público.

e) Los procedentes de las operaciones de crédito.

f) Multas.

g) Participación en los impuestos del Estado, Comunidad Autónoma, Diputación Foral y Municipios que se establezcan, en su caso.

Artículo 31.— Los recursos humanos que precisen las Cuadrillas serán proveídos por éstas en la forma que la legislación determina.

La Diputación Foral de Alava procurará la asistencia técnica y jurídica necesarias para el desenvolvimiento de la actividad de las Cuadrillas.

TITULO SEXTO.— RELACIONES DE LAS CUADRILLAS CON LA DIPUTACION FORAL DE ALAVA Y LAS JUNTAS GENERALES

Artículo 32.— 1.— La Diputación Foral de Alava deberá solicitar el informe de la Cuadrilla o Cuadrillas interesadas antes de adoptar la resolución que proceda sobre los asuntos a que se refiere el artículo 28.1 de esta Norma Foral.

2.— La Cuadrilla emitirá su informe en el plazo que la Diputación Foral señale, que nunca será inferior a quince días hábiles. Vencido el plazo sin emitir el informe se dará por cumplimentado el trámite.

3.— Cuando el asunto deba tramitarse como Proyecto de Norma Foral ante las Juntas Generales, la Diputación Foral remitirá a las mismas, junto con el Proyecto, el informe de las Cuadrillas que lo hayan emitido.

Artículo 33.— Si la Diputación Foral de Alava o sus Departamentos constituyen Comisiones informativas sobre asuntos en los que la Cuadrilla deba participar conforme a lo dispuesto en esta Norma Foral, la misma tendrá el derecho a asignar,de entre sus miembros, quien la haya de representar en dichas Comisiones.

Artículo 34.— Las Cuadrillas podrán remitir a las Juntas Generales cuantas comunicaciones estimen pertinentes sobre las materias de competencia de éstas, que se tramitarán de conformidad con lo que disponga su Reglamento de Funcionamiento.

d) Europako Ekonomi Elkartearen, Estatuaren, Autonomi Elkartearen eta Lurralde Historikoaren politika sektorialen garapenean eta egiterapenean eskualde erakundeei esleitutako eginkizunak bideratzea eta, hala badagokio, betetzea.

e) Eskualdearen interes orokorreko zerbitzuak sustatu eta kudeatzea.

f) Udalen, Aldundiaren, eta zuzenbide publikoko beste erakunde batzuren eskuordetzaz eskumenak bereganatzea.

g) Eskualdeko Lan eta Zerbitzuen Foru Egitasmoko lanen proposamena egin, delako Egitasmoa Foru Aldundiak gertatu baino lehen.

29. Artikulua.— Eskualdeei, Lurraldetar Toki Erakundeei legeria orokorrak esleitzen dizkien ahalmenak dagozkie.

BOSTGARREN TITULUA.— ESKUALDEEN BALIABIDEAK.

30. Artikulua.— Eskualdeen Ogasunak buruaski izan beharko du eta honako baliabideez osatuta egongo da:

a) Zuzenbide Pribatuko Sarrerak.

b) Bere ardurako zerbitzuak eman edo iharduerak burutzeagatikako tasa eta prezio publikoak.

c) Esandako entitateen ardurako lanak egiteratzeko edo zerbitzuak ezartzeko, zabalagotzeko edo hobetzeko kontribuzio bereziak.

d) Subentzioak eta Zuzenbide Publikoko beste sarrera batzu.

e) Kreditu eragiketetatik datozenak.

f) Isunak.

g) Estatuaren, Autonomi Elkartearen, Foru Aldundiaren eta Udalen zergetan ezartzen diren partaidetzak, hala gertatuz gero.

31. Artikulua.— Eskualdeak, behar dituzten giza bitartekoez hornituko dira legeriak ezartzen duen moduan.

Arabako Foru Aldundiak Eskualdeek bere iharduera burutu dezaten beharrezko laguntza teknikoa eta juridikoa eskainiko du.

SEIGARREN TITULUA.— ESKUALDEEN HARREMANAK ARABAKO FORU ALDUNDIAREKIN ETA BILTZAR NAGUSIEKIN.

32. Artikulua.— 1.— Arabako Foru Aldundiak interesatutako Eskualde edo Eskualdeen informea eskatu beharko du Foru Arau honen 28.1 atalean aipatzen diren arazoez bidezko den erabakia hartu baino lehen.

2.— Eskualdeak bere informea Foru Aldundiak adieraziko dion epearen barruan emango du, zein ezin izango den hamabost lanegun baino laburragoa izan. Epea bukatuta informea eman ez bada, izapidea betetakotzat emango da.

3.— Arazoa Foru Arau Proiektu bezala Biltzar Nagusien aurrean izapidatu behar denean, Foru Aldundiak, Proiektuarekin batera, Eskualdeek emandako informea ere bidaliko die.

33. Artikulua.— Baldin Arabako Foru Aldundiak edo bere Sailek informazio batzorderik eratzen badute Foru Arau honetan ezarritakoaren indarrez Eskualdeak parte hartu behar dueneko arazoei buruz, Eskualdeak bere kideen artetik Batzorde horietan bere ordezkaria izango dena hautatzeko eskubidea izango du.

34. Artikulua.— Eskualdeek Biltzar Nagusien ardurako gaiez egokitzat jotzen duen edozein berriemate bidali ahal izango diete haiei, honelako berriemateak beraien Funtzionamendu Araudian ezarritakoaren arabera izapidatuko direlarik.

Artículo 35.— 1.— La Diputación Foral, por propia iniciativa o a solicitud de la Junta de Cuadrilla, podrá delegar o transferir en ésta, siempre mediante aceptación expresa de la misma, la gestión y prestación de servicios en su ámbito territorial.

2.— La Diputación Foral fija mediante el correspondiente Decreto Foral, el alcance, modalidad, duración y demás condiciones de la gestión del servicio que se encomienda a la Cuadrilla, dando cuenta a las Juntas Generales.

3.— En todo caso, la Diputación Foral podrá reservarse las siguientes facultades:

a) Dictar Reglamentos de ejecución.

b) Establecer directrices y elaborar programas de gestión.

c) Recabar información sobre la gestión y formular requerimientos para subsanar las deficiencias observadas.

Artículo 36.— En las Juntas Generales existirá una comisión, de carácter ordinario para el estudio, debate y propuesta al pleno de cuantas cuestiones afecten a las Cuadrillas alavesas.

DISPOSICION ADICIONAL

La Junta de Cuadrilla establecerá su propio reglamento de funcionamiento, desarrollando lo dispuesto en la presente Norma Foral.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Desde la entrada en vigor de esta Norma Foral, las Cuadrillas constituirán sus órganos rectores de acuerdo con lo previsto en el Título III, Capítulo I, con la salvedad de que el plazo señalado en el artículo 15, será de dos meses contando desde la fecha de vigencia de la presente Norma Foral.

DISPOSICION FINAL

En todo lo dispuesto por esta u otra Norma Foral será de aplicación con carácter supletorio la normativa reguladora de las Entidades Locales.

Vitoria-Gasteiz, 21 de Noviembre de 1989.— El Presidente, JUAN JOSE IBARRETXE MARCUARTU.

5.986

35. Artikulua.— 1.— Foru Aldundiak, bere ekimenez nahiz Eskualde Batzarraren eskaeraz, honen lurralde eremuko zerbi-tzu kudeaketa eta ematea eskuordetu edo eskualdatu ahal izango dio berari, beti ere haren onarpen espresuarekin.

2.— Foru Aldundiak, Foru Dekretu egokiaren bidez, Eskualdearen gain jarritako zerbitzuaren kudeaketaren hedadura, modalitatea, iraunaldia eta gainerako baldintzak ezartzen ditu, Biltzar Nagusiei horren berri emanez.

3.— Foru Aldundiak beti ere honako ahalmenak gorde ahal izango ditu beretzat:

a) Egiterapen Araudiak ematea.

b) Jarraibideak ematea eta kudeaketa-egitarauak gertatzea.

c) Kudeaketari buruzko informazioa eskatzea eta nabaritutako akatsak konpontzeko agindeiak egitea.

36. Artikulua.— Biltzar Nagusietan batzorde arrunt bat izango da Arabako Eskualdeei eragiten dien edozein arazo aztertzeko, eztabaidatzeko eta Osoko Bilkurarako proposatzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskualde Batzarrak bere funtzionamendu araudia ezarriko du, Foru Arau honetan erabakitakoa garatuz.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Foru Arau hau indarrean jarriez geroztik, Eskualdeek bere zuzendaritza-organoak eratuko dituzte III. Tituluan, I. Kapituluan, ezarritakoaren arabera, salbuespen batekin: 15garren artikuluan adierazitako bi hilabetetako epea Foru Arau hau indarrean jartzen den egunetik aurrera izango dela.

AZKEN XEDAPENA

Foru Arau honek edo beste edozeinek ezarritako guztian, ordezko izaeraz aplikagarria izango da Toki Entitateak arautzen dituen arautegia.

Vitoria-Gasteiz, 1989ko azaroaren 21a.— Lehendakaria, JUAN JOSE IBARRETXE MARCUARTU.

5.986